



URTARRILAREN 5EKO 15:00ETAN IRITSIKO DIRA ERREGE MAGOAK UDALETXERA, GAMELUZ

**Lau aukera daude Ekialdeko Errege Magoak ikusteko:
(14:30ean, 15:00etan, 15:30ean eta 18:00etan)**

Ekialdeko Errege Magoek aurtengo honetan surflarien hondartza bisitatu nahi dute. Jasotzen dituzten eskaerek gure hiriko surfaren arrakasta handia adierazten dutenez, aurtén lehenengo agurra Zurriola hondartzatik egingo dute. Bertan izango dituzte zain beren laguntzaileak eta gameluak, elkarrekin Udaletxeko terrazara hurbiltzeko eta agur esatera gerturatu nahi duten pertsona guztiei harrera egiteko.

Meltxor, Gaspar eta Baltasar 14:30ean iritsiko dira eta hiriko Udaletxera hurbilduko dira jarraian, honako ibilbide honetatik:



15:30etik 17:00etara (Udaletxeko ateak itxiko dira) Errege Magoek harrera egingo diete Udaletxean agur esatera eta gutuna ematera hurbiltzen diren neska-mutil guztiei.

17:00etatik 17:30era Erregeen laguntzaileek Udaletxeko terrazara hurbildu diren neska-mutilen gutunak jaso eta Errege Magoei emango dizkiete, haur guztiek Erregeen opariak jasoko dituztela ziurtatzeko.

18:00etan bulebarretik irtengo da Errege Magoei ongi etorri egingo dien kabalgata eta hiriko kaleetan zehar ibiliko da: Hernani, Etorbidea, Urbietta, Prim, Bergara, Idiakez, Gipuzkoako plaza, Legazpi eta bulebarra.



Errege Magoekin batera, trikitilariak, txarangak, suhiltzaileak, tren turistikoa, **Dbuseko autobus hibrido bat** eta Errege bakoitzaren laguntzaileak izango dira kabalgatan. Aipatutako guztiez gain, animalien taldeak ere izango dira desfilean. Guztira, **592** parte-hartzaile.

Erregeen kabalgata dela-eta, hiriko hainbat lekutan trafikoa eten eta aldatu egingo da, eta aldaketak egingo dira, halaber, autobus-lineen geltokietan.

1.600 kilo gozoki baino gehiago banatuko dira neska-mutil donostiarren artean. Gozoki guztiak zeliakoek jateko egokiak izango dira.

19:00ak inguru amaituko da kabalgata. Jarraian, Ekialdeko Errege Magoak hiriko ospitaleetara hurbilduko dira.

HAINBAT DATU INTERESGARRI

- Errege Magoak 14:30 aldera iritsiko dira Zurriola hondartzara. Handik gameluz Udaletxerantz abiatuko dira, Kursaal zubitik eta Bulebarretik barrena.
- Harrera Udaletxean izango da.
- Harrera errazteko Alderdi Ederren hiru ilara antolatuko dira, errege bakoitzeko bat.
- Ezintasunak dituzten pertsonen sarrera errazteko, l jentea kaleko sarrera erabiltzeko aukera emango zaie, eta, modu horretara, Osoko Bilkuren Aretoan Errege Magoei agur esan ahal izango diete. Era berean, Hernani kalean toki bat gordeta izango da mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen desfilea eroso ikus dezaten.
- 17:30ean amaituko da harrera, kabalgata prestatu eta puntualtasunez hasi ahal izateko. Horretarako, 17:00etan Udaletxera sartzeko itxarote-ilara itxi egingo da.



- Errege Magoek gure hirira ekarriko dituzten opari guztiak garraiatu ahal izateko, Dbuseko autobus elektriko bat joango da, Donostiako Suhiltzaileen kamioi-eskalaren atzetik, kabalgata itxiz.
- 1.600 kilo gozoki banatuko dira, zeliakoek ere jateko modukoak. Era berean, Osoko Bilkuren Aretoan egingo den harrera ofizialean, neska-mutil diabetikoek beraiek jateko moduko gozokiak eskatu ahal izango dizkiete Erregeei.

- Jendeari, oro har, eta kabalgata etxetik ikusten duten pertsoneri, eskatu nahi diegu kabalgata igarotzean gozokirik edo antzeko produkturik ez botatzeko, nahasteak eta ezbeharrak ekidin nahi baitira (kabalgatako gozokiak pertsona zeliakoek jateko modukoak dira). Gure eskaera Prim kalean gozokiak botatzen dituzten pertsonengana zuzentzen da bereziki, izan ere, kalea oso estua da eta arriskua sortzen da gozokiak jasotzera karrozen ingurura hurbiltzen diren neska-mutilentzat.
- Errege Magoek karrozetan egingo dute desfilea.

Errege Magoen segizioak hiru karrozetatik botako ditu gozokiak ibilbide guztian: Meltxor Erregearen gaia "Fantasia zutargiekin" izango da; Gasparren karrozak jainko-jainkosa egiptoarrak edukiko ditu; eta Baltasarren karrozak basamortuko ganbelu bat irudikatuko du.